

PROBA ESPEZIFIKOA

2019ko PROBA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2019ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2019

**HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA**

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Erantzun **zortzi** ariketa hauetako lauri (Ariketa bakoitzak 2,5 puntu balio du).

1. Definitu Grezia prefilosofikoaren mitoa, eta adierazi haren oinarrizko ezaugarriak.

2. Esan egia ala gezurra diren beheko adierazpenak, eta azaldu zergatia:

Sofistek:

- a) Natura ikertzen dute.
- b) Uste dute egia erlatiboa dela.
- c) Erretorikarako gaitasun eskasa ageri dute.

3. Azaldu Gilen Ockhamgoaren filosofiaren giltzarri diren honako kontzeptu hauek:

- a) Nominalismoa.
- b) Ekonomia-printzipioa.

4. Azaldu ondoren aipatzen diren ezaugarrietatik zein egokitzen den hobekien “pentsatzen dut; beraz, banaiz” printzipio kartesiarraren esanahira:

- a) Lehenik, pentsamenduari antzematen zaio, eta gero, existentziari.
- b) Pentsamenduari eta existentziari batera antzematen zaie.
- c) Filosofia kartesiarraren lehen printzipioa da.

5. Zerrendatu eta laburbildu Kantengan eragina izan zuten autore edo korronte nagusien ezaugarriak.

6. Adierazi, pentsaera marxistaren ortodoxiatik, zuzenak ala okerrak diren baieztapen hauek (ez da beharrezkoa arrazoitzea):

- a) Iraultzak gainegitura aldatzera bideratuta egon behar du.
- b) Egitura ekonomikoa gizartearen oinarri erreala da.
- c) Azpiegiturak gainegitura zehazten edo baldintzatzen du.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2019ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS*

MAYO 2019

***HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA***

7. Adierazi zein diren Nietzscheren “Honela mintzatu zen Zaratustra” obraren alderdirik esanguratsuenak, eta azaldu obra horretan agertzen diren eta Jainkoaren heriotzarekin lotuta dauden sinbolo hauek:

- a) Gamelua.
- b) Lehoia.
- c) Haurra.

8. Beheko esapideek Sartreren filosofiari egiten diote erreferentzia. Adierazi zer esan nahi duten:

- a) “Gizakia alferrikako pasio bat da”.
- b) “Askatasunera kondenatuta gaude”.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2019ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2019

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

EBAZPENA FILOSOFIAREN HISTORIA (2019ko maiatza)

1. Erantzuna

“Mito” hitzak adierazpidea, mezua, kontatzen den zerbait esan nahi du. Ezohiko gertakariei buruzko kondairazko kontakizunak dira, oro har munduaren sorrerari buruzkoak, gizateriari buruzkoak... Fabulen edo alegoriazko fikzioen bitartez, oinarrizko gertakariak islatzen dira mitoetan, alegia, gizarte-arauak arrazoitzen dituztenak, sineskeriak, ohiturak... Mitoak irudimena, edertasun literarioa eta sormena pilatzen ditu. Hona hemen ezaugarri nagusiak:

- Mitoa funtsik gabeko pentsamendua da.
- Pentsamendu akritikoa da.
- Pentsamendu antropomorfikoa da. Jainkoei gizakien izateko modua aplikatzen diete: haserrea edo samina Zeusi aplikatzen zaion giza ezaugarri bat da, eta trumoiak eta tximistak azaltzeko erabiltzen dira.
- Naturako indarrak jainkotu egiten dira: haizea azaltzeko, Eolo jainkoa erabiltzen da, Atlas jainkoak lurra eusten du, tximista Zeus jainkoaren haserrearen ondorioa da, etab. Filosofiarekin emango da, hain zuzen ere, erantzun mitikoetatik erantzun logikoetarako pausoa, mitotik “Logos”-erako urratsa.

2. Erantzuna

“b” esaldia bakarrik da egia. Gainerakoak, garbi dago, gezurra dira.

- a) Gezurra da sofistek natura ikertzen dutela, haien benetako interesgunea gizakia baita. “Arje” gai zaharraren orde, gai antropologikoak hartzen dituzte: politika, hezkuntza eta gizartea. Beren buruei ez diete galdetzen naturari buruz (fisis-a) edota kosmosari buruz, baizik eta gizakiari buruz.
- b) Horrela bada, uste dute egia erlatiboa dela, guztia dagoela ikuspuntuaren mende. Protagorasek esan zuen moduan: “Gizakia da gauza guztien neurria”. Ez dago, beraz, egia absoluturik, norberaren egia baino ez dago. Ez dago egiarik, ez eta unibertsalki baliozkoa den legerik ere.
- c) Erabat gezurra da. Oratoriaren eta erretorikaren maisu ziren. Ikasleak “poliseko” bizitza aktiborako hezten eta prestatzen zituzten. Hizkuntza menderatzea eta erretorikarako eta politikarako gaitasuna lortzea zen helburua, edozein gairen inguruan arrazoitu, konbentzitu eta alde biak erakutsi ahal izateko.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2019ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2019

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

3. Erantzuna

- a) Nominalismoa: latinezko “nomen” hitzetik dator, eta izena, terminoa esan nahi du. Unibertsalei dagokienez, Ockhamgoaren iritziari jarraiki, unibertsalak ez dira ez kontzeptuak (kontzeptualismoa) ez objektuak (errealismoa), baizik eta soilik “izenak”, antzekoak diren gauzen multzoei aplikatzen zaizkienak; Ockhamgoak dio existitzen den guztia dela bakarra, ez dela existitzen unibertsala denik. Unibertsalak giza adimenak sortutakoak baino ez dira, gauzen zeinuak dira, gauzen ordezkari diren izenak.
- b) Ekonomia-printzipioa edo Ockhamgoaren labana: Esperientziaz baliatzen bagara, beharrezkoak ez diren kontzeptu abstraktuak erabili beharrik ez dugu, hots, adimen egilea, indibiduazio-printzipioa, etab. “Gauzak ez dira biderkatu behar, horretarako beharrik ez badago”. Printzipio horren bitartez, Ockhamgoak begi-bistakoa ez den guztia ezabatu nahi du. Hala, ezabatu egiten ditu filosofia aristoteliko-tomistatik enpirikoki egiaztatu ezin ziren kontzeptuak.

4. Erantzuna

- a) Lehenik pentsamenduari antzematen zaio, eta gero, existentziari. “Pentsatzen dut; beraz, banaiz” esaldiaren interpretazio hori ez da zuzena. Existentzia ez da pentsamendutik ondorioztatzen.
- b) Pentsamenduari eta existentziari batera antzematen zaie. “Pentsatzen dut; beraz, banaiz” ulertzeko modu zuzena da. Pentsamenduari eta existentziari batera antzematen zaie. Existitzen naizela ohartzen naizen une berean gertatzen da, hau da, subjektuak pentsatzean hautematen du existitzen ari dela. Existentzia ez da pentsamendutik ondorioztatzen, bi gauzak batera sumatzen dira.
- c) Filosofia kartesiarraren lehen printzipioa da. “Pentsatzen dut; beraz, banaiz” egia aldaezina da, ezin daiteke zalantzan jarri ziurra eta nabaria den zerbait. Oinarri horretan egituratzen du Descartesek bere filosofiaren eraikin osoa. Intuizioz jasotako lehen printzipio horretatik abiatuta, Descartesek bere filosofia osoa ondorioztatuko du. Filosofia kartesiarraren oinarritzko printzipioa da.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2019ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2019

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

5. Erantzuna

Hona hemen Kantengan eragin zuten autore eta korronteak, haren pentsamenduaren garai bakoitza markatu zutenak:

- Leibnizen arrazionalismoa, Wolff metafisikako maisuaren bitartez ezagutu zuena. Kant bereziki kritikoa izango da Leibnizen tesiekin, alegia, egia arrazoiak soilik ezagut dezakeela dioen tesiarekin, esperientzia alde batera utzita.
- Heziketa pietista zorrotza: Pietismoa protestantismoaren barneko mugimendu bat zen, eta kristautasuna berritzea eta, moralari dagokionez, exijentzia-maila zorrotza zituen helburu. Horrek arrastoak utziko ditu Kantengan, moralari dagokionez (Arrazoi Praktikoaren Kritika) eta erlijioari dagokionez, erritu eta praktika erlijiosoak baztertzen zituenez.
- Knutzen, logikako maisua. Hark bideratu zuen Newtonen mekanika, matematika, fisika eta metafisika ikastera.
- Humeren enpirismoa eta Rossearen pentsamendua. Haien bitartez ezagutu zituen Ilustrazio frantsesaren idealak, eta zoragarriak iruditu zitzaizkion. Kantek dioenez, Hume irakurrita "amets dogmatikotik esnatu zen". Hau da, Hume irakurtzeak arrazionalismoa uztera bultzatu zuen, eta bere aro kritikoa hasi zuen, jarrera antimetafisikoa hartuta.

6. Erantzuna

- Iraultzak gainegitura aldatzera bideratu egon behar du. **Gezurra.**
- Egitura ekonomikoa da gizartearen benetako oinarria. **Egia.**
- Azpiegiturak zehaztu edo baldintzatzen du gainegitura. **Egia.**

7. Erantzuna

Zaratustraren mezua Nietzscheren "Eguerdiko filosofia" izeneko garaiari dagokio: orain iristen da pentsamendua punturik gorenera, eguerdira iristen da. *Honela mintzatu zen Zaratustra* (1883–1885) lanik oinarrizkoena da, poetikoena eta profetikoena. Itun Berria izan nahi du. Zaratustrak ebanjelio berri bat predikatuko du, moral berri bat.

Lan horrek hiru zati ditu:

- Lehenengo zatian, Jainkoaren heriotza eta supergizakia deskribatzen ditu.
- Bigarreanean, botere-nahia.
- Hirugarreanean, etengabeko itzulera.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2019ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2019

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

Honela mintzatu zen Zaratustra lanean, hiru eraldaketaz hitz egiten digu, "Jainkoaren heriotza" hobeto ulertzeko. Hauek dira Nietzschekek erabilitako sinboloak:

- a) Gamelua: Gizaki sinestunaren sinbolo da. Gamelua basamortuko animalia da, eta zama handiak garraiatzen ditu. Obedientzia eta sakrifiziorako gaitasuna irudikatzen ditu. Belaunikatu egiten da mandamenduen taula zaharrak edo dekalogoak kargatu diezaioten eta oinez doa ezerezaren basamortutik. "Egin behar duzu" aginduaren mende dago.
- b) Lehoia: Balio erlijiosoak suntsitzen dituen gizakiaren sinboloa da. Jainkoa hil dela ohartzen da. Jainkoaren heriotzak uzten duen hutsunea gainditzeko izan behar diren indarra eta kemena irudikatzen ditu. Oihaneko erregea da, betebeharraren aurka azaltzen dena. Gameluaren "zuk egin behar duzu" horren kontra "nik nahi dut" dio.
- c) Haurra: Sorkuntzaren eta inozentziaren sinbolo da. Supergizakiaren izpiritua da, balio berriak ezartzen ditu, balio zaharrek erortzean utzitako hutsunea betez. Haurrak balio berriak sortzeko gaitasun ludikoa irudikatzen du.

8. Erantzuna

- a) "Gizakia alferrikako pasio bat da". Kontzientzia edo "nor bere baitarako izatea" ez da ezer, hutsa da, asebeteko bada gainerako gauzak behar dituen izateko grina da. Kontzientziak nahitako izaera du: xedera bideratzen da. Kontzientziak gainerako gauza guztiak bezalakoa izan nahi du, baina alferrikako nahia da, porrotera kondenatuta dago. Horregatik da gizona alferrikako pasioa, desio asegabea, proiektu bukatugabea...
- b) "Askatasunera kondenatuta gaude": Existentzia, funtsean, hautaketa da. Hautaketa askatasunaren ondorio bat da, gizakia errotik askea den izaki bat da. Sartrek dioen moduan, "askatasunera kondenatuak, kateatuak" gaude, eta ezin diezaiokegu utzi aske izateari. Askatasunaren bitartez hautatzen dugu gure bizitza. Existentziak hautatzera behartzen gaitu, zer izan nahi dugun hautatzera: "...Hautatzeari uko egitea, hala, ez hautatzea hautatzea da... (...)...ez gara aske aske izateari uzteko" (J. P. Sartre: *Izakia eta ezereza*)



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2019ko MAIATZA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2019

HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA

ONARRIZKO ZUZENKETA-IRIZPIDEAK

Ondoren, azterketak zuzentzeko zenbait irizpide azalduko ditugu. Galdera bakoitzaren puntuazioa 2,5 da, hiru faktoreren arabera bananduta: orokortasuna (1,5), koherentzia (0,75), sendotasuna (0,25).

1. **Orokortasuna:** gaiaren egitura, orokortasun kontzeptuala eta historikoa — gero eta dimentsio gehiago hartzen dituzten zirkulu zentrokideak— izango da zuzenketaren oinarrizko ildo; beraz, zenbat eta sakonagoa eta zabalagoa izan erantzuna, orduan eta handiagoa izango da puntuazioa, irizpide hauen arabera:

- Erantzunean ageri den edukia (esaten dena) baino ez da kontuan hartuko (esaten ez dena kontuan hartu gabe). Beraz, puntuazioa metatuz joango da; gutxituz, sekula ez.
- Sakontzea honela ulertu behar da: galdetzen den filosofiaren eta/edo garaiaren ideia zentraletara pixkanaka hurbiltzea.
- Zabaltzea, honela: ideia eta/edo inguruabar historiko gehiago aipatzea.

2. **Koherentzia:** azalpenaren ordenari dagokio. Ideiak logikaz ageri dira ordenatuta lehenetsun baten arabera —epistemologikoa, ontologikoa, historikoa...—. Nolanahi ere, erantzuna ibilbide ulergarri baten bidez garatzen da.

3. **Sendotasuna:** testuan kontraesanik ez egotea —zerbait baieztatzea eta, gero, haren kontrakoa edo gaiarekin zerikusirik ez duena esatea; filosofiak ez nahastea, ez eta garai historikoak ere, eta abar—.

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

| GALDERA | EZAGUTZA-ADIERAZLEA |
|---------|---------------------|
| 1 | 3.7 |
| 2 | 4.5 |
| 3 | 5.8, 5.9 |
| 4 | 6.2 |
| 5 | 7.7 |
| 6 | 8.1 |
| 7 | 9.5. |
| 8 | 10.1 |